upna

Universidad Pública de Navarra

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

2011-2012

Bigarren Hezkuntzako

Irakasleen Prestakuntza

Masterra

Master Amaierako Lana

Kontzeptu mapak Artearen Historia ikasten laguntzeko

Ikaslea:

Itsaso Kondearena Apalategi

Tutorea:

Emilio Majuelo Dk.

Universidad
Pública de Navarra

Nafarroako
Unibertsitate Publikoa

MASTER AMAIERAKO LANA

2011 – 2012

AURKIBIDEA

Sarrera 3

1. Eremu teorikoa 4

1.1. Aurrekariak 4

1.2. Egungo egoera 6

2. Master Amaierako Lanaren helburuak eta hipotesia 8

3. Lanaren diseinua eta metodologia 8

3.1. Lagina 8

3.2. Informazioaren bilketa 9

3.2.1. Behaketak 9

3.2.2. Elkarrizketak 10

3.3. Kontzeptu mapak Artearen Historia ikasten laguntzeko 12

4. Emaitzak 15

5. Ondorioak 16

6. Bibliografia 18

7. Eranskinak 20

Sarrera

Master Amaierako Lanaren (MAL) xede nagusia, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntza Masterra gauzatzen ari garen ikasle eta etorkizuneko irakasleak, Bigarren Hezkuntzako errealitatean murgiltzea eta bertatik gairen bat ikertzea da.

Gure MAL-ak hezkuntzaren berrikuntzarekin zerikusi duen ikerketa izaera dauka. Abiapuntua, Bigarren Hezkuntzako *curriculum*-a eta zehazki, Bigarren Batxilergoko Artearen Historia ikasgaia izango da.

Azken hamarkadedan psikologian eta pedagogian eta zehazki didaktika alorrean ikuspuntu konstruktibistaren ildotik egin diren ekarpenak gureak eginez, ikasketa esanguratsuan oinarrituko gara, hau da, norbanakoak ezagutza eraiki dezakenaren ideian.

XXI. mendeko ikasketa sisteman dauden beharrei erreparatuz, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan aplikazio berritzailea bezain erakinkorrak diren ikas baliabideekin lan egitea izango da gure asmoa.

Honenbestez, hezkuntzaren berrikuntzei aplikatutako ikerketa gauzatzeko, *Ikerketa Ekintza* metodoan oinarrituko gara. Gure MAL-a jakintza teoriko zein praktikoen bateraketa eta konparaketaren bidez sortutako emaitza delarik.

Lana zazpi ataletan antolatu dugu. Hasteko *eremu teorikoa* bitan banatu dugu, alde batetik, *aurrekarien* azpiatalean, aipatutako filosofia konstruktibistaren sorrera eta ideiez hitz egitearekin batera Novaken kontzeptu mapak ditugu hizpide. Bestalde *egungo egoera* azpiatalean, XXI. mendeko ikasketa sistemaren inguruko zertzelada batzuk ematen dira, bai IKT-en inguruan, gaitasun zein Artearen Historiak *curriculum*-ean duen egoera aztertuz. Jarraian, *Master Amaierako Lanaren helburuak eta hipotesia* aurkezten dira. Ondoren *lanaren diseinu eta metodologia* garatu dugu, hau hiru azpitaletan egituratuz, *lagina, informazioren bilketa* eta *kontzeptu mapak Artearen Historia ikasten laguntzeko* ikas baliabide izan zitezkeen frogatzeko ikaslegan martxan jarritakoa laburbiltzen da. Bigarren Batxilergoko ikasleengandik jasotako *emaitzak* atalean, hauen interpretaketa orokor bat egin dugu eta *ondorioak* atalean lana burutzearekin batera sortu zaizkigun ausnarketen laburpena adierazten dugu. Azkeneko bi atalek lana gauzatzeko erabili dugun *bibliografia* aurkezten da eta oinarrizko *eranskinak* atxikituz bukatzen dugu txostena.

Azkenik, eskerrak eman nahiko genituzke, Master Amaierako Lana gauzatzen lagundu diguzuen

guztiei, orokorrean, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Giza Zientzien Fakultateari eta masterreko Gizarte Zientzi eta Humanitateetako Geografia eta Historia eremuko irakasleei orohar eta zehazki Emilio Majuelo gure tutoreari adierazi digun erantzukizunagatik. Horretaz gain, Ana Mendiorozek eskeini digun arreta eta laguntza ere, espreski eskertu nahiko genuke. Aldi berean, San Fermin Ikastolako irakasle-tutore izan dugun Joseba Asiron Dk.a eskertu nahiko genuke, Master Amaierako Lan hau gauzatzeko eskeinitako laguntza profesioanlagatik eta bere eskuzabaltasunagatik. Amaitzeko, Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Prestakuntza Masterreko Amaierako Lana euskaraz egin eta aurkezteko aukera eman diguzuen irakasle dokotore guztiei gure esker ona adierazi nahiko genizueke.

1. Eremu teorikoa

1.1. Aurrekariak

Gure Master Amaierako Lana gauzatzeko filosofia konstruktibistan oinarritu gara. Konstrukibismoa pedagogiaren korronte garrantzitsu bat da, ezagutzaren teorian oinarritzen dena.

Korronte pedagogiko hau 1960. hamarkadan indartzen hasi zen, hezkuntzan paradigma berria sortuz. David Paul Ausubelek, 30. hamarkada amaieran eta 70. hamarkada bitartean bere ideia teorikoak formulatzen zihoan garaia izan zen, psikologia konduktibistaren joera bere garairik gorean zegoelarik. Izan ere, konduktibismoa, psikologia orokorraren paradigma izan zen, zehazki, hezkuntzaren psikologiarena, epistemologia positibistaren nagusitasunarekin uztartu zelarik. Ausubelen ideiak garrantzitsuak bezain polemikoak izan ziren. Hala ere, urte hauetan zehar ezagutzaren teoriaren inguruan lan egin duten adituen zerrenda aberatsa bada ere, korronteko nagusienak, aipatutako D. P. Ausubel, J. D. Novak eta D.B.Gowin izan ziren.

Eredu kognitibo/konstruktibista honek ikasketa esanguratsu bat gauzatzeko bidea ahalbidetzen du, hau da, ezagutza esanguratsua eraikiz. Hau gauzatu ahal izateko, ikasketa honen abiapuntua, ikasleak bere jakintza propioa eraikitzen duen tesian oinarritzen da, ikaslea prozesu kognitibo honen protagonistan bihurtuz. Ausubelen ekarpenetatik funtsezkoena hau da: ikerlarien begirada ikasketaren subjektura bideratu behar dela, hots, ikaslearenagana, gaineratuz, sujektu honek dituen aurre kontzeptuak, ikasketaren baldintzatzaileak direla. Ondorioz, ordu arte indarrean zegoen ikuspegi konduktibista edo behavioristarekin apurtzailea zen prespektiba berri bat proposatu zuen.

Esan bezala, ikasketa esanguratsuaren prozesuan, subjektuaren aurrejakintzak, ondorengo

jakintzaren abiapuntu eta oinarri dira, norbanakoak duen egitura kognitiboan ezagutza berriak txertatzen joaten direlarik. Ikasketa hau etengabeko eraiketa berreraiketa prozesu bat da, garai bateko jakintza berriak aurrerago, aurrejakintzetan bihurtzen direlarik. Norberak eraikitzen duen ezagutzan oinarrititako teoria honek dio, ikasketa, garunaren garapen naturalaren ondorio bat dela. Jakintza berriak barneratu ahala, indibiduoak estruktura kognoszitibo konplesuagoa eraikitzen du.

Ausubelen[1] esanetan, ikasketa esanguratsua eraginkorra izan dadin, hiru balditza bete behar ditu:

- Ikaslearen aurrejakintza nabarmenak zeintzuk diren ezagutzea.
- Ikasleak era honetan ikasi nahi duen jarrera erakustea, ikasketa memoristikoaren ordez ikasketa esanguratsuaren alde eginez. Irakasleak, ikasleak eraiki dezakeen ezagutzaren aldeko ikasketa sustatu behar du.
- Ikasketa esanguratsua ahalbidetuko duten material egokien beharra. Irakaslearen lana ezin bestekoa da, ezagutzeren bidean laguntzen eta bideratzen duen gidaria delako.

Konstruktibismoren asmo nagusia, gaitsun kritikoa, sortzailea eta autonomia pertsonala garatzen laguntzea da. Azken emaitza, ikasleak, ikasten ikastea delarik.

Ikasketa esanguratsua ahalbidetzeko bi irakas tresna sortu zituzten, Novakek, kontzeptu mapak eta Gowinek V diagrama[2].

Novakek, kontzeptu mapak, 1975ean diseinatu zituen, Ausubelen (1968) ezagutzaren teoria kognitiboan oinarrituz. Novakentzat, hezkuntzaren helburu nagusia, norbanakoarentzat esanguratsuak diren esanahiak eraikitzeko gaitasuna lortzea litzateke, oinarrizko kontzeptuen gainean ezagutza eraikiz.

Kontzeptu mapak, indibiduoak dituen kontzeptuak eta hauen arteko elkar harremanak adierazten dituen hierarkizazio bisual bat dira. Garunean jakintza garatzeko dugun modua irudikatzeko tresna da, garunean gertatzen den prozesua idatziz islatzeko aukera ematen duelarik.

Kontzeptu mapak, kontzeptu eta hitz loturez osatzen dira, bi kontzeptu edo gehiagoren arteko loturak unitate semantikoak osatzen dituzte. Kontzeptuen arteko harremanak jarraitzen duten eredua orokorrenetik zehatzenerako urratsa da. Novaken ustetan, egitura kognitiboa hierarkiko antolatzen

1 NOVAK, J. D. *Conocimiento y aprendizaje. Los mapas conceptuales como herramientas falicitadoras para escuelas y empresas.* González, C. (itzultzailea). Madrid: Alianza Editorial, 1998. 73-105or.
2 GONZÁLEZ GARCÍA, F.M. *El Mapa Conceptual y Diagrama V. Recursos para la Enseñanza Superior en el siglo XXI.* Madrid: Narcea, S.A. Ediciones, 2008.

da, idei orokor, tarteko idei eta idei partikularrez. Prozesu hau *ikaskuntza supraordenatua* izendatzen du.

1.2. Egungo egoera

XXI. mende honen hasieran, badirudi, mendebaldeko Hezkuntza Sistemek berea egin dutela ikuspegi konstruktibista. Nafarroako Bigarren Hezkuntzako *curriculum*[3]ari erreparatuz gero, xede nagusien artean, ikasleek ikasketa esanguratsu eta autonomoa lortzea da.

Norberto Bogginok[4] aipatzen duen moduan, azken urteetan, ikuspuntu konstruktibista ikerlarien interes gune izateaz gain ikasketa sistemak filosofi honen ideiak bereganatu ditu. Praktika pedagogikoan ordea, *pedagogia helarazlea* nagusitzen da, non jakintza, produktu elaboratu gisa ulertu den, ikasleak, jasotzen duen moduan bereganatu behar duelarik . Novaken[5] ustetan gizakiak ikasteko gaitasun handia badu ere, askotan garatu gabe dagoela dio, batzuetan, hezkuntza praktikek ikasketa esanguratsua ahalbidetu beharrean eragotzi egiten dute, oroimenezko ikasketa bultzatuz eta ikasketa esanguratsua zigortuz.

Ikuspegi konstruktibista ikaskuntza sistema guztien ahotan badabil ere, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren oinarri bihurtzeko urrun dago oraindik. Handik eta hemendik irakurri dugunaren arabera, ikasketa esanguratsua gauzatzen ahalegintzen diren irakasleek, ikasleengandik emaitza onak jasotzen dituztela frogaturik dago.

Ausubelen ideiak gogoratuz, ikasketa esanguratsua eraginkorra izan dadin, hiru balditza bete behar direla aipatu dugu, horietako bat, ikasketa esanguratsua ahalbidetuko duten material egokien beharra da. Kontzeptua mapak, horietako baliabide bat dira, bere balioa frogaturik dagoelarik, Novaken *Learning, Creating, and Using Knowlledge. Concept Maps as Facilitavi Tools in Schoos and Corporations* (1998) liburuan adierazten den moduan. Lehen Hezkuntzan[6], Bigarren Hezkuntzan[7] eta Unibertsitatean ez ezik, kontzeptu mapak, zientzia eta lan eremu ezberdinetan erabiliak izan dira, hala nola, aplikazio mediko, kliniko, psikologiko eta enpresarial ugaritan.

---

3 FORU DEKRETUA 49/2008ko maiatzaren 12koa. Nafarroako Batxillergo irakaskuntzen egitura eta curriculuma ezartzen duena. Iruñea: Nafarroako Gobernua, Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2008/06/6, 70. zenb.

4 BOGGINO, N. *Didáctica constructivista para la enseñanza por áreas. Cómo abordar problemas actuales y enseñar de forma contextualizada.* Sevilla: Homo Sapiens Ediciones, 2007. 187 or.

5 GONZÁLEZ GARCÍA, F.M. *El Mapa Conceptual y Diagrama V. Recursos para la Enseñanza Superior en el siglo XXI.* Madrid: Narcea, S.A. Ediciones, 2008. 51 or.

6 CADENAS LOBO, I." Mapas conceptuales y la estructuración del saber: Una experiencia en el área de educación para el trabajo". *Educare artículos,* 2002, 17, 9-19 or.

7 FERNÁNDEZ, T. "Mapas conceptueales y diagrama uve: dos estrategias en la enseñanza-aprendizaje de la historia". *Comunicación, Lenguaj ,y Educación.* 1992,16, 7-24 or.

Hezkuntzaren alorrera mugatuz, kontzeptu mapak, XXI. mendeko irakaskuntza-ikaskuntzarako tresna lagungarriak direla onartzen da. Aldi berean, iraultza teknologikoaren erdi erdian kokatzen den gizartean bizi garela ere aitortzen da, etengabeko mugimenduan dagoena. Informazio eta Komunikazio Teknologiak egungo eredu sozial eta ekonomikoaren bitarteko bilakatu dira, hezkuntza sisteman ere eraginez. Ezagutzaren gizarte gisa izendatzen den garai honetan, ikasleen egunerokotasunaren parte dira IKT-ak eta *curriculum*-aren garapenerako ezin besteko tresna. Alejandro Martínez Gonzálezek[8] gogoratzen digun moduan, IKT-en ezagutza eta erabilera aukera bat izatetik beharrezkoa bihurtu da.

Europako Legebiltzarrak eta Kontseiluak[9] 2006ko abenduaren 18an ikaskuntza iraunkorrerako giltzarriak diren zortzi gaitasunei buruzko gomendioa betetzeko eskatu zien hezkuntza eta heziketa sistemei, zortzi gaitasunak hauek dira: hizkuntza-komunikatzeko gaitasuna, gaitasun matematikoa, ingurune fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarrekintzan jarduteko gaitasuna, informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala, gaitasun soziala eta hiritarra, gaitasun kulturala eta artistikoa, ikasten ikasteko gaitasuna eta autonomia eta ekimen pertsonala.

Horietako bat, informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala dugu, baina orokorrean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako *curriculum*-ak eta espreski Gizarte Zientiarenak, honekin batera beste zazpi gaitasunen garapenak bereak egiten dituzte.

Artearen Historiak berriz, ahalmen handia duela uste dugu zortzi gaitasun horien ikaskuntzan eragiteko, baina egungo *curriculum*-ean duen agerpena urria da eta gainera, Cristófol Trepatek[10] dioen moduan, bere ikaskuntza, artelanen irakurketan mugatzen da.

Bat egiten dugu, Arthur D. Elfandek[11], defendatzen duenarekin, arteak jakintzen arteko integrazioa gauzatzeko balio dutela, artea eta kulturaren harremana elkarrekikoa delako. Honenbestez, *curriculum*-ean arteak garrantzi gehiago izan beharko lukeela proposatzen du, gainontzeko eremuekin duen elkarreraginagatik.

---

8 MARTÍNEZ GONZÁLEZ, A. "La enseñanza y el aprendizaje de las Tecnologias de la Información y la Comunicación en la intervención socioeducativa". *Cuadernos de Trabajo Social*. 2004, 17, 251 or.

9 http://www.europa.eu

10 TREPAT i CARBONELL, C. A. "La lectura de arte en secundaria". *Iber: Didácitca de las ciencias sociales, geografía e historia*. 1998, 8, 57-68 or.

11 EFLAND, A.D. Arte ycognición. La integraciín de las artes visuales en el currículm. Mata A. (itzultzailea) Barcelona: Octaedro- EUB, 2004

2. Master Amaierako Lanaren helburuak eta hipotesia

MAL honen asmo nagusia, 2. Batxilergoko Artearen Historia ikasgaia erakusteko, egun, ikasketaren kontzeptu berriaren inguruan, hezkuntzaren psikologiak egin dituen ikerketek ondorioztatu dituzten ekarpenak irakaslearenak egitea da. Ekarpen hauek, aurretik azaldu dugun teoria konstruktibistan oinarrituz sortuak izan dira.

Aipatu asmo nagusiarekin batera, ikasleak, ondorengo hiru helburu hauek eskuratu beharko lituzke:

1. Artelanek helarazten dituzten kode anitzetaz jabetzea.
2. Kontzeptu mapak tresna lagungarriak izatea Artearen Historia ikasteko orduan.
3. Gaitasun digitala lantzea, XXI. mendean irakurtzea eta idaztea bezain garrrantzitsu den IKT-en alfabetizazioarekin jarraitzeko.

Honenbestez, Master Amaierako gure lanaren hipotesia hau da:

> Bigarren Batxilergoko Artearen Historiako irakaskuntza-ikaskuntza prozezuan, kontzeptu mapen erabilera lagungarria izan daitekeela frogatzen saiatzea da.

3. Lanaren diseinua eta metodologia

3.1. Lagina

Master Amaierako Lan hau 2. Batxilergoko Artearen Historiako ikasleekin burutu dugu. 17-18 urte bitarteko gazte hauek San Fermin Ikastolako ikasleak dira. Iruñerriko Zizur Txiki herrian dagoen Ikastolako ikasleak, hain zuzen ere.

2011-2012 ikasturtean, Artearen Historia egiten duten ikasle kopurua 25ekoa da, 21 neskaz eta 4 mutilez osatutako taldea. Giza eta Gizarte Zientzien arlotik doazen ikasleentzat hautazkoa da ikasgaia eta Gizarte Zientziatakoentzat ordea modalitateko ikasgaia da, astean lau ordu izaten dituztelarik.

Ikasle talde honek, maila akademiko ona du. Gaitasun akademikoei erreparatuz gero, gela nahiko homogeneoa da. *Practicum II*-an zehar ikasleen 1. eta 2. hiruhilabeteko emaitzak ezagutzeko aukera izan genuen. Gelaren bataz bestekoa 7´5ekoa zelarik. Gainera, ikasle nahikoren kalifikazioak 9ra eta 10era iristen ziren. Bestalde, 3. hiruhilabeteko azterketak zuzentzeko aukera izan genuen eta emaitzak aurreko kalifikazioen antzekoak izan ziren.

3.2. Informazioaren bilketa

3.2.1. Behaketak

Irakaslearen irakas metodoa

Bigarren Batxilergoan, Artearen Historia ikasgaia astean lau saiotan lantzen dela esan dugu. Astelehenetik ostegunerako saioek 55 minutu irauten dute eta ostiralekoak 60 minutu.

Gure *Practicum II*-ko tutorea Joseba Asiron Irak. Dk. izan zen eta bere Artearen Historiako irakas metodoa behatu ondoren, esan genezake azalpenezko eskoletan oinarritzen dela baina, azalpen hauek, irakasleak berak sortutako euskarri materielen eta digitalen laguntzaz garatzen dira.

Irakasleak iturri ezberdinetan oinarrituz 2. Batxilergorako espreski sorturiko material didaktikoa egin zuen. Ikasleen testu liburua bi txostenez osaturik dago. Bata kurtsoan zehar lantzen duten eduki teorikoen bilduma da eta bestea, saio ezberdinetan zehar ikusi eta ikasten dituzten artelan guztien bilduma.

Irudien txostena ezohikoa (1 eranskina) da. Ikasleek irudiak bilatu behar dituzte, sarean, eta txostenean itsasi. Honenbestez, irudien txosten hau ikasleak Artearen Historiako protagonistak bilakatzen saiatzen da, beraiek baitira ikas materiala osatu behar dutenak, ikasketa autonomo batera bultzatuz. Era honetan, irakasleak ikasleen partehartzea bilatzen du, bien artean *feedback*-a sortzeko asmotan, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua gauzatuz.

Ez da ahaztu behar, Batxilegorgoko azkeneko kurtso honetako *curriculum*-a oso baldintzatuta egoten dela, ikasleei Unibertsitateko ateak irekiko dizkien Hautaprobei begira eta plangintza didaktiko osoa, irakas metodoa barne, baldintzatzen duela.

Ikasleen ikasketa prozesua

Aurretik agertu dugun bezala, gure lagineko nerabeen ikasketa prozesua, irakaslearen azalpenezko saioetan eta lan autonomoan oinarritzen da, Artearen Historia ikasteko metodo historiko-artiskoa landuz. Lehenengo, gazteek, irakasleak prestatzen duen eduki teorikoa eta artelanen analisiak jasotzen dituzte. Jarraian sortu zaizkien zalantzak galdetuz eta dituzten iritziak azalduz, ikasgela irakasle eta ikasleen arteko jardun aktibo eta partehartze gune bihurtzen da. Azkenik, banakako

lanari, etxean egin behar duten lan autonomoari, garrantzia handia ematen zaio ebaluazioan, azken baitan, Unibertsitatean edo Goi Mailako Lanbide Heziketan jarraituko dituzten ikasketetarako beharrezkoa den gaitasun bat delako.

Ebaluazio. Azterketen zuzenketak

Kurtsoa hiru ebaluaziotan banatzen da. Ikasleen lan autonomoari eta partehartzeari balio handia ematen zaion arren, kalifikazioaren ia-ia ehuneko ehuna, azterketa idatziak eramaten du. Unibertsitateko Hautaproban oinarrituriko azterketa ereduak burutzen dituzte, honen ebaluazio irizpide berberak jarraituz.

Practicum II-an zehar hirugarren ebaluazioko azterketak behatu eta zuzentzeko aukera izan genuen. Ikasleen emaitzak oso onak izan ziren. Aipatu berri dugun Hautaproben egituraren ildoan oinarrituz, emaitzak ikasketa memoristikoaren isla zirela iruditu zitzaigun.

3.2.2. Elkarrizketak

Irakasleari elkarrizketa

Elkarrizketa honetan irakasleak sortutako material didaktikoaren inguruan sakontzeko aukera izan genuen.

Baliabide didaktikoak sortzearen arrazoi nagusiak bi zirela azpimarratu zuen, biak harremanetan zeudelarik. San Fermin Ikastolak irakas material propioak sortzeko duen ardura profesionala litzateke bat. Bestea, euskarazko irakaskuntzaren hasierako urteetan egon zen eduki eskasiarekin zerikusia duena da. Bi arrazoi hauek garai bateko eskaintza urriarekin eta euskal irakaskuntzaren aldeko eskaerekin lotu behar dugu.

Horretaz gain, argitaletxetako testu libururik ez erabiltzearen beste arrazoi bat, *curriculum* ofizialean agertzen diren eduki guztien bildumak izaten direlako omen da. Gezurra badirudi ere, Hautaprobetarako ez dira eskatzen *currilulum*-ean ageri diren eduki guztiak. Honenbestez, kurtsoan zehar testu liburuaren ehuneko handi bat ez erabiltzekotan Bigarren Batxilergoko edukietara zehazten den material bat sortzea erabaki zuen.

Material didaktikoa 1994ean sortu baldin bazuen ere, urteetan zehar egokitu duen materiala dela

azpimarratzen zuen irakasleak. Ikasleen behar zein eskaeretara ahalik eta hoberen egokitzeaz gain, XXI. mendeko gizarteak eskaintzen dituen baliabide digitalak hezkuntzan atxikitzea ezin besteko dela adierazten zuen.

Ikasleei eginiko elkarrizketa

Practicum II-an zehar, ikasleekin ikasgaiaren inguruko hainbat arlotaz hitz egiteko aukera izan genuen. Lehenengo bi asteetan saioetako azken 5-10 minutuetan, ahoz galdera ezberdinak egin genizkien eta beraien erantzunak, aurrerago klasean aplikatu genuen teknika berritzailea sortzeko abiapuntua bihurtu zen.

Jarraian prestatu genituen galderak eta ikasleen erantzunak laburbiduko ditugu:
- Gustoko al duzue Artearen Historia ikasgaia?
Ikasle gehienek ikasgaia gustoko zutela esaten zuten. Historian zehar gizakiak sortutako artelanak ezagutzea interesgarria zela iruditzen zitzaien. Klaseetan gustora egoten ziren. Hala ere, ikasgaitik gustatzen ez zitzaiena, eduki asko ikasi behar zirela aipatu zuten.

- Zer da ikasgaitik gehien gustatzen zaizuena?
Ikasle batzuk gaia bera atsegin zutela azpimarratzen zuten, artelanak ikusiz garai historiko batekoa edo bestekoa zela jakiteak jakinmina sortzen zielako. Beste batzuei ordea, beste ikasgaietatik ezberdina zelako gustoko zuten. Ikasgaian artelanak ikusi eta aztertu behar dira, beste ikasgai batzuk baino dinamikoago egiten zitziaelarik.

- Ikasgai erreza iruditzen al zaizue?
Kurtso hasieran askoz zailagoa iruditzen zitzaien ikasgaia, Artearen Historiak eskatzen duen terminologia arrotza egiten baizitzaien. Pixkanaka ordea, terminilogia bereganatzearekin ikasgaia beste era batean ikusten hasi zirela aipatzen zuten. Edukien zailtasuna handia ez bada ere, beharrezkoak diren teknizismoak, hasieran batik bat, konfiantza falta sortaraz dezakeela ados zeuden, batzuetan artelanak ulertu beharrean buruz ikastera bultzatuz. Berriro ere zioten, asko ikasi beharreko ikasgaia zela eta honek ikasgaiaren zailtasun maila areagotzen zuela.

- Zer egiten zaizue errezagoa, gai teorikoak lantzea edo obren analisi formalak egitea?
Galdera honen bitartez, erantzun ezberdinak jaso genituen. Neska talde batek, saioetan gai teorikoak lantzea zailagoa egiten zitzaizkiela esaten zuten artelanak aztertzea baino. Izan ere, irakasleak, klaseetan artelanen ezaugarri formalak azaltzerakoan, ulerterraza egiten zitzaien. Baina azterketan,

ordea, galdera teorikoak erantzutea askoz errezagoa zela aipatu zuten, buruz ikasiz gero, idatzi besterik ez zelako egin behar. Aldiz, artelan baten analisia egiterako orduan, nahiz eta ikasi, iruzkina era egoki eta koherente batean idaztea lan erreza ez zela zioten. Nahiz eta artelan batek helarazten duen informazioa jaso, hitzen bidez jasotakoa era ordenatu batean idaztea kostatu egiten zitzaiela zioten.

Beste talde batek ordea, bai saioetan zein azterketetan gai teorikoak ikastea askoz errezagoak zirela pentsatzen zuten, artelanen analisia arrotzagoa egiten zitzaielako. Zenbait obren ezaugarri formalak ulertzea asko kostatzen zitzailela zioen ikasle talde honek. Aldi berean, aurreko neska taldearen antzera, artelanen analisia egiterako orduan, iruzkinari koherentzia ematea zaila egiten zitzaien.

Amaitzeko, ikasle guztiak bat zetozen esaterakoan, artelanen analisi formaletik zailena, balorazioa egiten ikastea zela. Gu ere ados gaude azkeneko erantzun honekin. Balorazio on bat egitea ez delako epai arautu bat ikuspegi subjetibo eta objetiboaren arteko ausnarketaren ondorioa baizik eta honetarako, artearen historiaren ikuspegi orokor bezain sendoa edukitzea ezinbestekoa da.

- Artelan batean aztertu beharreko elementu orokorrak zeintzuk diren argi izanez gero iruzkinak errezago egingo dituzuela uste duzue?
Ikasle guztiek, baietz erantzun zuten.

- Artelan bat aztertzen dakienak artelana gehiago disfrutatu dezakeela uste duzue?
Orokorrean ikasleek, artelan bat ongi aztertzen jakinez gero, iruzkina gustorago egiten dela aipatzen zuten. Iruzkinaren pausuetan pentsatzen egon beharrean, artelanak helarazten dituen kodeetan pentsatu daitekeelako.

3.3. Kontzeptu mapak Artearen Historia ikasten laguntzeko

Bigarren Batxilergoko Artearen Historiako irakaskuntza-ikaskuntza prozesua behatu ondoren, ikasgai honetan lagungarria eta berritzailea bihur zitekeen baliabide batean pentsatzen hasi ginen.

Laginaren ezaugarriei erreparatuz gero, hezkuntzarako garrantzitsuak diren bi ezaugarri betetzen zituzten, bata gaitasun akademikoa eta bestea motibazioa. Ikasketa subjektuei, ikasleei elkarrizketak egin ostean, eta haien aurrejakintzak ezagutu ondoren, gure Master Amaierako Lana, obren irakurketa errazteko baliabideren batean zentratu behar ginela ikusi genuen. Norbanakoarentzat artelanen analisiak gauzatzeko esanguratsua zen ereduak sortzera bultzatuz. Aipatutako behaketak

eta irakurritako zenbait lanek, besteak beste Mercedes Guillér Molinerrek[12] aurrera eramandako ikerketak, lagungarriak izan ziren.

Honenbestez, konstruktibismoaren ideiekin bat eginez, material on batek, artelanen analisiaren (eskatzen den analisiaren irakurketa nagusiki formala da) garapena ulertzen laguntzen duela abiapuntutzat harturik, Bigarren Batxilergoko Artearen Historia ikasgaian kontzeptu mapen erabilerak, ikasketa prozezuan lagungarria izan ahal zen baliabidea zela frogatu nahi izan genuen.

Proiektuak lau fase lituzke:

1. Fasea: Pinturaren analisia eta nagusiki irakurketa formala egiteko kontutan izan beharreko irizpide eta jarraibideak kontzeptu mapa batean aurkeztuko litzaioke klaseari. Kontzeptu mapa, *Cmap Tools* programa bidez sortuz.

2. Fasea: Taldeka edo banaka ikasleen erdiak, eskultura baten analisi formala egiteko kontutan hartu beharreko kontzeptu eta irizpideen inguruan ausnartu ostean, kontzeptu mapa bat eginen lukete eta beste erdiak aldiz arkitekturarena. Ikasleek eraikitako kontzeptu mapak, dakitena eta sortzen dituzten kontzeptuen arteko harremanak ezagutzeko adierazle eraginkorrak dira, bai irakaslearentzat baita ikaslearentzat ere. Ondoren, lanak, ikaskideen aurrean aurkeztuko lituzkete, denen artean, talde ezberdinek egindako kontzeptu mapak aztertuz eta behar izatekotan osatuz. Ariketa honek ikasleei kontzeptuak hierarkizatu, antolatu eta elkar harremanak sortzen laguntzearekin batera, analisi formal bat egiterako orduan, pertsona bakoitzak ezberdin egin dezakela ohartzeko baliko luke. Eredu bakarra esistitzen ez dela ikusiz eta norbanakoarentzat esanguratsua den eredua sortzera bultzatuz.

3. Fasea: Behin lengoai artistiko ezberdinetan, artelanen analisi eta zehazki analisi formal egoki bat egiteko kontutan hartu beharreko elementuak bereganatu ondoren, ikasleei bi artelanen iruzkin formala egitea eskatuko litzaieke. Artelan horietako bat klasean landutakoa litzateke, bestea ordea ezezaguna.

4. Fasea: Ikasleek inkesta bat bete beharko lukete, baliabide berri honen inguruan emaitzak jasoz, ondoren ondorioztatu ahal izateko.

---

12 GUILLÉR MOLINERREK, M."El análisis de una obra de arte: valoración del alumnado y del profesorado sobre la enseñanza de este procedimiento en los libros de texto". *Proyecto CLIO*. 2010, 36, 18 or.

MAL-a gauzatzeko, ikasleekin aipatutako lau fase hauek aurrera eramatea zen helburua. *Practicum II*-an ordea ezin izan genuen ikasleekin dena landu, honenbestez, proiektu piloto baten aurrean kokatzen gara. Aurrera eraman ahal izan genuena, lehenengo eta laugarrena izan ziren.

Aipatu bezala, lehenengo fasea, ikasleentzat eredugarria izan ahal zen, pinturaren analisi formala (2 eranskina) egiteko kontutan izan beharreko irizpideak erakusten zituen kontzeptu mapa zen. Kontzeptu mapek adierazten duten hierarkizazioari jarriatuz eta Novakek izendatzen zuen ikasketa supraordenatuari men eginez, kontzeptu orokorra *Pintura* zen, eta bertatik bost adar jaiotzen ziren, tarteko kontzeptua hauek, *Ongi begiratu, Identifika, Testuinguru Historikoa, Deskribapena* eta *Balorazioa* zirelarik. Bost hauek, Bigarren Batxilergoko ikasleak artelan baten analisia egiteko oinarritzen diren kontzeptuak dira. *Cmap Tools* programa bidez sorturiko baliabide digital hau kontzeptu zehatzagoz hornitzen joan ginen, kontzeptuen arteko hierarkizazioa zein elkar harremana modu bisualen erakusten zuelarik.

Zenbait kontzepturen kasuan, bertan klikatuz gero beste kontzeptu mapa batera eramaten zintuen, kontzeptu horren inguruan aztertu beharrekoa sakontzasun gehiagoz azalduz. Aipaturiko kasuetako bat, *Deskribapena*-ren kontzeptua litzateke, izan ere atal hau artelanaren analisi formalaren ardatza da. Hierarkia horren bigarren mailan kokatzen ziren kontzeptuak *Pintura Figuratiboa* eta *Pintura Abstraktua* ziren. Jakina denez, Unibertsitateko Hautaprobako Artearen Historiako artelanak aztertzearen atalaen, ez da pintura abstakturik eskatzen. Baina ikasleak banaketa horretaz jabetzea garrantzitsua zen. Hala ere, *Deskribapeneko* atala lantzerako orduan, pintura figuratiboetan nagusitzen diren ezaugarri formatelan oinarritu ginen. Hauen artean, esanguratsuenetako bat *Konposizioa* da, bertan ere beste mapa kontzeptual bat irekitzeko aukera egonez.

Bestalde, zenbait kontzeptu eranskinez hornitu genituen, aipatutako kontzeptu maparekin eta nagusiki artelanen irudiekin. Izan ere, kontzeptu batek adierazten duena, gure kasuan bidimentsionala den artelan batean ikustea askoz lagungarriagoa da ikasleentzako. Enrique Martínez-Salanoren [13] iritziarekin bat eginez, hitzak eta irudiak ez dira kontrajartzen. Irudi batek mila hitz baino gehiago balio duen esaldia, guztiz egiazkoa edo guztiz gezurrezkoa bihur daiteke, irudia mila hitzez osatzen ez bada.

Laburbilduz, Bigarren Batxilergoko ikasleei zuzendutako Pinturaren irakurketa egiteko mapa kontzeptuala osatu genuen, honek dituen abantaila eta programak ahalbidetzen zituen eranskinen bidez, irakskuntza-ikaskutza prozesuan lagungarri bihur zitekeen tresna aurkeztuz.

13 MARTÍNEZ- SALANOVA, E. "Aprender pasándolo de película". *Comunicar*. 1998, 11, 28 or.

4. Emaitzak

MAL-aren gauzapenean pentsatu genuenean, azaldutako lau ekintzak ikasleekin aplikatu ostean, emaitza horien inguruan ausnartzea zen helburua. Baina esan bezala, Pinturaren analisiaren kontzeptu maparen azalpena eta inkesta egitera mugatu behar izan ginen, klaseko irakaskuntza-ikaskuntza erritmoari oztoporik ez egite arren.

Bigarren Batxilergoko Artearen Historiako ikasleei ikas material berritzailea aurkeztu ostean, laginarengandik jasotako emaitzak ondorengoak izan ziren.

Esan bezala lehenengo fasea, pinturaren analisia eta nagusiki irakurketa formala egiteko kontutan izan beharreko irizpide eta jarraibideak kontzeptu mapa batean aurkeztuean zetzan. Artearen Historiako irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako sorturiko baliabide berri honen inguruan, 1. fasearekiko esan dezakeguna, klasean behatutakora mugatu beharrean gaude. Ikasleen ahozko lengoia zein ahozkoa ez den lengoaiaren bidez, mapa kontzeptuala begi onez jaso zutela ondorioztatzera garamatza. Izan ere, 17-18 urteko bitarteko gazteak azalpenetan adi egon ziren, askorengan jakinmina eta harridura sortuz.

Laugarren fasearen inguruan, hau da, ikasleek osatu beharreko inkestan (3 eranskina), aipatu beharra dago, hasiera batean prestatutako galdetegia eta azkenean klasean banatutako galde-sorta egokitu behar izan genuela, jakina denez, aurreikusita genituen fase guztiak aplikatu ezin izan genituen arrazoia dela medio.

Practicum II-an ikasleei pasatako inkestako emaitzen interpretaketa orokor bat eginez ondorengo ondorio hauek lortu genituen.

Ikasleei, kontzeptu mapa erabiltzea erakargarria iruditu zitzaien, gehiengoek "bisuala", "ikusgarria", "ikusterraza" bezalako izenondoekin harremandu zutelarik. Batzuen ustetan, eranskinen bidez are eta baliabide erakargarriago batean bihurtzen zela aipatzen zuten.

Baliabide digital hau Artearen Historia ikasteko tresna lagungarria izan zitekeen galdetzerakoan, orokorrean artelanen irakurketa eta nagusiki irakurketa formala egiteko jarraibideak era argian azaltzen zirenez, baligarria iruditu zitzaien. Ikasle batzuk, modu hierarkiko batean kontzeptuak agertzeak ikuspegi orokorra izateko balio izan ziela komentatzen zuten, beste batzuk ordea, kontzeptuak askoz osatuagoa egoteak eta haien artean harremanak erakustean, errepaso bat egiteko

balio zuela aipatu zuten. Hain baliagarria iruditu ez zitzaien ikasleak ere bazeuden, kontzeptu guzti horiek, Artearen Historiako edukia menperatzea esan nahi ez zuela azpimarratuz. Ikasle hauen iritziarekin bat egiten badugu ere, kontzeptu mapak ikas material direla berritsi nahi genuke, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua beste hainbat baliabiderekin osatu behar delarik. Teresa Fernándezek[14] dioen moduan, kontzeptuen irakaskuntza-ikaskuntzara mugatzea akatsa da, baina arlo bakoitzeko kontzeptu garrantzitsuen esanahia edukitzea ezin bestekoa oinarria da, ondoren kontzeptu horiek edukiz eta loturaz betetzeko. Aldi berean, ikasle batek "kontzeptu mapa eta eskema baten artean zegoen berdintasuna edo ezberdinatasuna zein zen" galdetu zuen, galdera ireki gisa planteatuz.

Ikasle gehienek artelanen analisiak egiteko kontzeptu mapa lagungarria zela aipatu zuten. Hala ere, kurtso hasieran horrelako baliabide batek are gehiago lagunduko ziela azpimarratu zuten askok. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan zein Batxilergoan, Artearen Historiak *curriculum*-ean duen presentzia oso murritza da, ikaslea disziplina honek eskatzen dituen metodo historiko-artistikoa landu gabe iristen da Bigarren Batxilergora, ikasgaia arrotza eginez. Kurtsoak aurrera egin ahala ikasgaiak eskatzen dituen beharretara egokitzen badira ere, bereganatze prozesua urrun dute. Honenbestez, kontzeptu mapak Artearen Historiarako iruzkinak egiten ikasteko baliabide egokia izan daiteke.

Kuadro ezezagun baten, zehazki analisi formal bat egiteko gai izango ziren galdetzerakoan, gehienek irailan egiten jakingo ez zutela zioten. Kurtso amaieran ordea, zehozer gehiago idatzi ahalko luketela. Hala ere, orokorrean, ezezaguna zen kuadro baten iruzkina egiteko ziurtasun falta zutela erakutsi zuten emaitzek, irudien munduak helarazten dituen kode anitzak bereganatzeko irakaskuntza-ikaskuntza prozesu luzeago baten beharra dagoela erakutsiz.

Unibertsitateko Hautaprobetan ikas baliabide honek lagunduko zien galdetzerakoan, orokorrean edozein baliabidea lagungarri izango zitzaiela pentsatzen zuten. Zehazki, kontzeptu mapen ahalmen bisualak lagunduz.

5. Ondorioak

Gure Master Amaierako Lana ikerketa piloto bat dela esango genuke, diseinu eta metodologian azaldu genituen fase guztiak laginarekin frogatzeko aukerarik izan ez genuelako, *Practicum* II-ko

14 FERNÁNDEZ, T."Mapas conceptueales y diagrama uve: dos estrategias en la enseñanza-aprendizaje de la historia". *Comunicación, Lenguaje,y Educación.* 1992, 16, 7-24 or.

egutegiaren baldintzen pean baiginen. Izan ere, *Parcticum* II-ak eskatzen zuen edukia lantzeaz gain Bigarren Hezkuntzako eta bereziki, Bigarren Batxilergoko irakaskuntza-ikaskuntza erritmora egokitzea ezinbestekoa zen. Beraz, gure MAL-a gauzatzeko, denbora laburra eta aurreikusitako ikerketaren alderdi guztiak frogatu ez bagenituen ere, honek etorkizuneko ikerketa eta ausnarketarako bidea ireki digula aipatu beharrean gaude.

Lehenago esan bezala, gure lana *Ikerketa Ekintza* metodoan oinarritu da, ikerkelariak rol bikoitza bateratuz, alde batetik, ikerlariarena eta bestetik, partehartzailearena. Dena den, ohartzen gara, aipatutako baldintzak medio, ez digutela aukerarik eman erabateko ikerketa zientifikoa burutzeko.

Gure hipotesia bergogoratuz, Bigarren Batxilergoko Artearen Historiako irakaskuntza-ikaskuntza prozezuan, kontzeptu mapen erabilera lagungarria izan zitekeen ikas material berritzailea zela abiapuntutzat harturik ekin genion lanari. Jada, emaitzen atalean laginetik bildutako datuen interpretaketa orokorraz hitz egin dugu eta laburbilduz, esan dezakegu, kontzeptu maparen erabilerak hipotesian aurreikusitakoa baieztatzen duela. Ikasleek ikas baliabide honen ahalmena ulertu zutela adierazi zuten, kontzeptu mapen gaitasun edo potentzialitate bisualaz ohartzearekin batera. Beraz, ikasketa era ordenatu eta hierarkizatu batean ahalbidetzeko balio duen ikas material dela esan genezake. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako egokia den baliabidea dela uste badugu ere, eta oraingoz etekin gutxi ateratako tresna dela uste arren, ez dugu pentsatzen baliabide on bakarra denik**.**

Beraz, kontzeptu mapak, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan, ohiko ikas baliabide batean bihurtuko balira, emaitza onak jasoko genituzkela pentsaraztera garamate, gure laginarekin izan genuen esperientzia laburrean oinarrituz.

Bigarren Hezkuntzan zehar, Artearen Historia irakaskgaiak *curriculum*-ean duen presentzia oso murritza dela aipatu dugu. Ondorioz, ikasleak disziplina honek eskatzen dituen metodo historiko-artistikoak menperatu gabe iristen dira Bigarren Batxilergora, ikasgaia arrotza egiten zaielarik. Ikasleek kurtso hasieratik amaiera arte garapen nabarbena erakusten badute ere, orokorrean, irudien munduak helarazten dituen kode anitzak bereganatzeko, irakaskuntza-ikaskuntza prozesu luzeago baten beharra ukaezina dela azpimarratuko genuke.

Artearen irakaskuntza-ikaskuntza prozesua nagusiki artelanen analisi formalean oinarritzeak, Artearen Historiak ikasleei eskaintzen dien disziplina arteko aberastasuna errotik kentzeko balio duela uste dugu. Gizarteari galdera ireki bat luzatuz amaituko genuke, zergatik ez dugu ikasleekin

artelana aztertzeko ikuspuntu (soziala, psikologiko, ikonografikoa...) ezberdinik tartekatzeko saiakerarik egiten, aberasgarriago bada?

6. Bibliografia

Eskuliburuak

AGIRRE I. *Teorías y prácticas en la educación artística. Ideas para una revisión pragmática de la experiencia estéitica*. Pamplona/Iruñea: Ediciones OCTAEDRO/EUB-Universidad Pública de Navarra/Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 2005.

BOGGINO, N. *Didáctica constructivista para la enseñanza por áreas. Cómo abordar problemas actuales y enseñar de forma contextualizada.* Sevilla: Homo Sapiens Ediciones, 2007.

EFLAND, A.D. *Arte y cognición. La integración de las artes visuales en el currículm*. Mata A. (itzultzailea) Barcelona: Octaedro- EUB, 2004.

FORU DEKRETUA 49/2008ko maiatzaren 12koa. Nafarroako Batxillergo irakaskuntzen egitura eta curriculuma ezartzen duena. Iruñea: Nafarroako Gobernua, Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2008/06/6, 70. zenb.

GONZÁLEZ GARCÍA, F.M. *El Mapa Conceptual y Diagrama V. Recursos para la Enseñanza Superior en el siglo XXI.* Madrid: Narcea, S.A. Ediciones, 2008.

MENDIETA, G. et. al. *La educación artística en la escuela. Claves para la innovación educativa.* Barcelona: Editorial Graó, 2007.

NOVAK, J. D. *Conocimiento y aprendizaje. Los mapas conceptuales como herramientas falicitadoras para escuelas y empresas.* González, C. (itzultzailea). Madrid: Alianza Editorial, 1998.

READ H. *Educación por arte*. Barcelona: Editorial Paidos. 1982.

Artikuluak

CADENAS LOBO, I. "Mapas conceptuales y la estructuración del saber: Una experiencia en el area de educación para el trabajo". *Educare artículos,* 2002, 17, 9-19 or.

OJEDA CABRERA, A. et. al, "Los mapas conceptuales: una poderosa herramienta para el aprendizaje significativo". *Acimed*. 2007, 15 (5).

GUILLÉR MOLINERREK, M."El análisis de una obra de arte: valoración del alumnado y del profesorado sobre la enseñanza de este procedimiento en los libros de texto". *Proyecto CLIO*. 2010, 36, 18 or.

FERNÁNDEZ, T. "Mapas conceptueales y diagrama uve: dos estrategias en la enseñanza-aprendizaje de la historia". *Comunicación, Lenguaje y Educación.* 1992, 16, 7-24 or.

HUERTA, R. "Maestros, museos y artes visuales. Construyendo un imaginario Educativo". *Arte, Individuo y Sociedad.* 2011, 23, 1, 55-72 or.

MARTÍNEZ GONZÁLEZ, A. "La enseñanza y el aprendizaje de las Tecnologias de la Información y la Comunicación en la intervención socioeducativa". *Cuadernos de Trabajo Social*. 2004, 17, 237-253 or.

MARTÍNEZ- SALANOVA, E. "Aprender pasándolo de película". *Comunicar*. 1998, 11, 27-36 or.

MATTHEWS, M.R. "Vino viejo en botellas nuevas: Un problema con la epistemologa Constructivista". Barberá O.; Puig L. (itzultzailea). *Enseñanza de las Ciencias.* 1994, 12 (1). 79-88 or.

TREPAT i CARBONELL, C. A. "La lectura de arte en secundaria". *Iber: Didácitca de las ciencias sociales, geografía e historia.*1998, 8, 57-68 or.

Webgrafia

Elhuyar Fundazioa: www.euskara.euskadi.net/r59-15172x/eu/hizt_el/index.asp

Europar Batasuna: www.europa.eu

Eurydice. La red europea de información sobre educación: www.eurydice.org

7. Eranskinak

1 eranskina: Irudien txostena, Bigarren Batxilergoko ikas materiala

2 eranskina: Pinturaren analisia egiteko jarraitu beharreko irizpideen kontzeptu mapa

3 eranskina: Ikasgelan pasatako inkesta

ARTEAREN HISTORIA

BATXILERGO 2KO APUNTEAK

San Fermin Ikastola

II. IRUDIAK.

IZENA:

QUATTROCENTOKO PINTURA DIAPOSITIBAK

Masaccio Hirutasuna. 1427. Horma-pintura. 667x317 Florentzia. Santa Mª Novella eliza	Masaccio. Paradisotiko Kanporaketa. 1427 Horma-pintura. Florentzia, Brancacci Kapera, Sta. Mª del Carmine eliza
Fra Filippo Lippi Amabirjina Haurrarekin eta bi aingeruekin (xehetasuna). 1465. Tenplea+Ohola Florentzia. Uffizzi Galleria	Piero della Francesca Amabirjina Haurrarekin eta sainduekin. 1474. Oleo+Ohola. 248x170 Milan. Pinacoteca Brera.

2 eranskina: Pinturaren analisia egiteko jarraitu beharreko irizpideen kontzeptu mapa




DESKRIBAPENA
-ean esan den
Pintura Figuratibo
Pintura Abstraktua
Gaia, Generica, Ikonografia
arlo ezberdinen bitartez egin
Tekmika
-ren arabera, askotan halako
izan daiteke
adibidez
Akuarela
Templea
Freskoa
Oleoa
Akrilikoa
Horma
Ohola
Mihisea
-k ahalbidetu gauzatzen
Euskarria
Komposizioa
Espazioa
-ren trataera kuadroan
Sakontasuna
Planimetria
Argia
adibidez
Argiaren adierazpen
Trataera
adibidez
Ereaala
Sinbolikoa
Irrealia
Argilunak
zein den
Disdirak
Kolorea
-ren
Izarea
adibidez
Beroa
Hotza
Sinbolikoa
Naturalista
Aplikazioa
adibidez -k eragin
Pintzelada askea
Pintzelada zehatza
Kuadraren azalera
-ren bitartez landu daiteke
Kalitateen ikerketa
adibidez
Leuna
Oretsua
Disdiratsua


Konposizioa
-n aztertu behar da
Formaren antolaketa
Nagusitzen diren lerroak
Mugimendua
harremanetan
-k sortu konposizio ezberdinak, adibidez
izan daitezke
modu ezberdinetan adierazi
Konposizio simetrikoa
Konposizo asimetrikoa
Konposizio irekia
Konposizio itxia
Konposizio piramidala
Lerro bertikal
Lerro horizontal
Lerro diagonal
Egonkortasuna, Hieratikoa
Mugikortasuna
egon daitezke
Barne tentsioak
Erritmoak
Eskortzoa
Bat-batekotasunaren errepresentazioa

3 eranskina: Ikasgelan pasatako inkesta

GALDERAK	BAI	EZ	ZERGATIK
1. Kontzeptu mapak erabiltzea erakargarria iruditu zaizu?			
2. Artearen Historia ikasteko tresna lagungarriak direla uste duzu?			
3. Kontzeptu mapak pinturaren analisi formala egiteko kontutan hartu beharreko irizpideak zeintzuk diren barneratzen lagundu dizu?			
4. Kuadro bat ezagutu gabe, analisi formal bat egiteko gai izango zinateke? (Kuadroren testuinguru historikoa eta identifikazioa zehaztea beharrezkoa ez delarik)			
5. Kontzeptu mapako irizpideak barneratzen badituzu, selektibitatean pintura baten analisia egiteko eskatzen badizute, iruzkina errazago idatziko duzula uste duzu?			

Oharrak _____